



HAUR LITERATURAREN DUINTASUNAZ

Duela berrogei urte irabazi nuen Lizardi Saria. Honek bultzada handia eman zion nire literaturbide hasi berriari...Beti esker onez eta estima handiz izan dut sari hau eta haur literaturak duen duintasunaz aritu nahiko nuke ekitaldi honetan, urte luze hauetako ondorio gisa edo.

- Haur- eta gazte-literatura ez da haurrentzat idazten dena soilik, neska-mutilek bereganatzen dutena baizik. Liburu asko dira haurrentzat idatzi ez zirenak, baina hainbat belaunalditako haurrek eta gazteek bereganatu dituztenak: Vernerrenak, Dumasenak, Poerenak, Dickensenak, Londonenak, Asimovenak... Eta badira beste liburu asko haurrentzat eta gazteentzat idatzi zirenak, baina neska-mutilei interesatzen ez zaizkienak, ez haurrei ez gazteei, eta, irakurtzen baldin badituzte, berehala ahazten dituzte.

- Ez dira gauza bera haur- eta gazte-literatura, eta literatura light. Ez da hitz konplikaturik gabeko literatura, hizkuntza lantzen ez duena, gai zailik edo konplikaziorik gabea. Haurren eta gaztearen adierazpen- eta ulermen-aukerak bereganatzen dakizkien literatura da, haiek errealitatea eta mundua interpretatzeko dituzten moduak, gertatzen diren eta gertatzen zaizkien gauzetan egoteko duten modua.

- Haur- eta gazte-literatura ez da protagonista haurra edo gaztea duen literatura. Egia da sarritan adin jakin bateko haur edo gazte baten presentziak errazago ekar dezakeela irakurlearekiko identifikazioa, baina hori besterik ez da: lagungarria gerta daitekeen tresna bat. Literatura horrek bat etorri behar du haurren eta gazteen kezka, premia eta desirarekin, eta hori da garrantzitsua.

- Haur- eta gazte-literatura eta didaktika ez dira gauza bera. Eta hori garrantzitsua da, zeren, hitzez, denok –egileok, editoreok, bitartekariok...– hori nahiko garbi badaukagu ere, behar baino gehiago tentatzen baikaitu “literatura xededun” (pedagogiko, didaktiko) horrek. Christine Nöstlinger, nik biziki miresten dudana haur-literaturako egile handietako baten hitzetan: “Haur-literatura ez da pastilla pedagogiko bat letrezko paperean bildua, literatura baizik, hau da, mundua hizkuntza bihurtua”.

- Haur- eta gazte-literaturaren hartzailerek literatura orokorra idaztean geure buruari eskatzen diogun zorrotasun literario berbera merezi dute. Saillapenak –haurrentzat/helduentzat– ez dio ezertxo ere eransten esperientzia edo emozio literarioari; pediatria bat, beste ezer baino lehen, medikua da. Haur- edo gazte-literatura ez da trantsizio-literatura bakarrik.

- Haur-literatura idaztea erronka estilistikoa da idazle ororentzat: ahalik eta emoziorik handiena eskaini behar du, hizkuntza- eta literatura-baliabide mugatu eta hautatuekin.

- Eta, azkenik, haur-literatura idaztea adierazpidea eta komunikabidea da idazlearentzat, bere barneko mundua, bere balioak, baita bere inkontzientea ere bideratzeko modu bat.

Hau guzti hau esanda, eskerrak eman behar dizkiet ekitaldi honen antolatzailei nire ideiak aldarrikatzeko aukera eman didatelako, opari bat izan da.

Lizardi Sariak izan dezala urte askotako bizitza emakorra!

Mariasun Landa





LITERATURA GAZTE BATEN ALDEKO MANIFESTUA AURKI

- 1.** Haur eta gazte literaturako irakurle, idazle, entzule eta parte-hartzaile guztiek Otik 99 urte bitartera dituzte. Eta bakoitzak aukeratzen du noiz dituen 99 eta noiz 9.
- 2.** Haur eta gazte literaturako edozein testu zein kontakizunetan, txoriek igeri eta arrainek hegan egiten dezakete. Edo astoek dantza eta arrainek arrantza. Eta mundua ez da horregatik hankaz gora jarriko.
- 3.** Haur eta gazte literaturak harritu egingo zaitu. Ahozabalik gauetan, begi zabalik goizetan. Kriseilu barruko jeinuari zerbait eskatzekotan, harritzen jarraitzeko ahalmena eskatu. Ilusioa sekula ez galtzeko esperantza.
- 4.** Haur eta gazte literaturak hobeto lo egin eta hobeto lo eginarazteko balio du. Nahiz eta batzuetan lo eragin-arazlea lehenago lokartu, lo goxoan erori behar zuena baino. Tira, denok ere ahozabalik.
- 5.** Asma ditzagun kolore berriak haur eta gazte literaturan! Ipuin edo poema bat idaztera ausartzen den orok, kolore berriak asmatu beharko lituzke. Edo gutxienez, saiatu.
- 6.** Haur eta gazte literaturan Txanogorritxu ez da beti gorritz janzten. Pantone kolore guztietako kapa edo estalkiak ditu. Ingalaterrako Ama Erreginak bezala, bide batez esanda.
- 7.** Ez dago zazpigarren punturik. Haur eta gazte literaturan ez baitago araurik.
- 8.** Haur eta gazte literaturak mundu berriak asmatzeko, sortzeko balio du. Eta sarri askotan mundu zahar honi ertzak borragomaz ezabatzeko ere bai.
- 9.** Haur eta gazte literatura ezinbestekoa da edozein pertsona arrunten bizitzan. Gainean daramagun soineko gardena da. Eta ez bazenekiten oraintxe jakin duzue. Biluzik? Enperadore eroa ere ez.
- 10.** Haur eta gazte literaturak umeak bezalakoa izan behar du; zintzoa, jolastia eta ameslaria.
- 11.** Haur eta gazte literaturako testuek, ahoz gora kontatzeko modukoak izateaz aparte, kantatzeko modukoak izan behar dute. Kontatu eta kantatu, zuk hautatu melodia.
- 12.** Haur eta gazte literaturako testu batek, buruko pantailan marrazkiak piztu behar dizkizu. Eta irudi horiek norbere imajinarioan gorde. Ahal bada betiko.
- 13.** Haur eta gazte literaturako testuak usaindu ahal izan behar dira, lehenago esan dugu ikusi eta entzun ere egin behar direla.



- 14.** Haur eta gazte literaturako letrek bihotza dantzan jarri eta gosea zabaldu behar dizute. Liburu gehiago deskubritzeko gosea. Nam!
- 15.** Ondo dago ipuinak ahoz gora kontatu eta aditzea, baina liburu barruko pertsonaien pisua eskuetan eustea ere bai. Uki itzazue liburuak. Ez dute hozka egiten... momentuz!
- 16.** Haur eta gazte literaturari ume bati bezala gertatzen zaio; maitasunez zaintzen baduzu, osasuntsuago hazten da.
- 17.** Haur eta gazte literaturak poesia deitzen den anai-arreba txiki bat dauka. Mesedez, ez ezazue poesia ahortzi. Ez utzi bazter batean txikia delako, ez egin ez-ikusiarrena berarekin. Poesiak handi egingo zaituzte.
- 18.** Aurretik aipatu ditugun puntu guztiek edozein literatur generotarako balio dute. Ez dago zaharrik ume izan ez denik. Ez dezagun haur eta gazte literatura gutxietsi.
- 19.** Zuri ematen dizut irakurle, behin honaino iritsita, 20. puntua idazteko aukera.
- 20.**

Zarautzen 2022ko apirilaren 2an,

Leire Bilbao





MANIFESTU BI

Manifestu bat idatzi bat da non hainbat asmo edota dotrina aldarrikatzen diren. Batzuetan, manifestuek joera bat garatzeko oinarriak ezartzen dituzte. Nire asmoa ez da hori, baizik eta, egin zaidan enkarguari erantzunez, neure praktikan oinarritutako zenbait ideia enuntziatzea. Horregatik, hona hemen manifestu bi, bata luzea eta bestea laburra.

GAZTE LITERATURAZ EDO GURPILAREN MANIFESTUA

Lehenengo adierazpena

Liburu bat **gurpil** bat da.

Bigarren adierazpena

Gurpilek uztai, erradioak eta mazoa izaten dituzte.

Hirugarren adierazpena

Gurpilaren **uztaia** aleazio batez egina da. Aleazio hori lau substantziaren nahastetik sortzen da eta erresistentzia ematen dio gurpilari:

- **banakotasuna**, edo protagonistaren barne-prozesua.
- **etenak**, kontraera moztea jakin-mina oraindik ere gori dagoenean.
- **erreferentziak**, edo hainbat arte-esparrutako adibideak (zinea, musika, pintura...).
- **miszelanea**, edo orotariko jakintzen brintzak, betei ere fikzioaren zerbitzura: mitoak eta sinboloak, astronomia eta astrologia, geografia eta orografia, oihalak eta joskintza, filosofia, anatomia...

Laugarren adierazpena

Gurpilaren **erradioek** pisuari eusten diote mugimenduaren tentsioak orekatuz, eta sei dira:

- **gozarena** eragiteko erradioa
- **ihesbidea** eskaintzeko erradioa
- **irudimena** garatzeko erradioa
- **hausnarbideak** proposatzeko erradioa
- **balio onuragarriak** sustatzeko erradioa
- **hizkuntzarekiko estimua** pizteko erradioa

Bosgarren adierazpena

Gurpilaren **mazoa** pieza zentrala da zeinetan erradioak presioz sartzen diren. Mazoa —argumentua— zenbat eta sendagoa, bizi luzeagoa izango du gurpilak.

Seigarren adierazpena

Gurpil pare bat edo gehiago elkartu eta denen kokapenari eutsi nahi zaioenan **ardatza** da ezinbestekoa. Gure ardatza euskera da.

Zazpigarren adierazpena

Gurpilak **iltzeak** behar ditu atalak josteko. Idazlea, irakurlea, editorea eta irakaslea dira iltzeak; diru-laguntzak, literatur programak eta kritika, iltzeak finkatzeko tresna, ezen iltzeren bat soltatu edota galtzen bada, gurpilaren higadura trabestu egiten da nahitaez.



Zortzigarren adierazpena

Gurpilak, Lurrak bezala, bi **higidura** egiten ditu: errotazioa, bere buruaren inguruan biratzen denean: liburua beregaina da; eta traslazioa, aurreraka nahiz atzeraka biratzen denean: liburua norabait doa. Beste hitz batzuetan, liburuak eskubidea du birigarroari birigarro deitzeko eta mihiluari mihilu, "txori" edo "landare" deitzetik haratago, behintzat hizkuntzaren altxorra garraiatu nahi badu, ez kutxa soilik.

Bederatzigarren adierazpena

Gurpilak bere **abiadura-mugak** ditu: derrigorra zaio martxa pausatua bidea patxadaz egiteko.

Hamargarren adierazpena

Gurpilak **tratamendua** eskatzen du, bai zati metalikoek, bai zurezkoek. Herdoildutako zatiak garbitzeko, erabili orratz-eskuila. Produktu bereziak ere badira, hala nola berrikuntza eta arriskuak. Zurezko zatiak zaintzeko, ordea, hezetasunak hondatu baditu, egokiak dira gai beroak eta herri-tradizioaren pintura.

Hamaikagarren adierazpena

Gurpilaren **kalitatea** zerbitzu estetikoaren eta zerbitzu etikoaren arteko batz bestekoak determinatzen du.

Hamabigarren adierazpena

Poesia ere bada gurpila. Eta baditu uztaiak, erradioak, mazoa eta ardatza. Eta higidurak eta abiadura-mugak. Baina ia galduak ditu iltzeak, eta tratamendurik ez. Txatar-biltegitik atera beharra dago, koipeztu eta bere zerbitzuak egin ditzan..

Hamahirugarren adierazpena eta azkena

Gurpil oro bakarra eta azkena balitz bezala hartu behar da.

HAUR LITERATURAZ EDO UR TANTAREN MANIFESTUA

Lehenengo adierazpena eta bakarra

Liburu bat **ur tanta** bat da. Tanta horretan, haurrak bere bihotza topa dezake.

Miren Agur Meabe

Zarautz, 2023ko apirilaren 2an

